



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO IRITZIAK (2018KO MAIATZA)

Prensa oharra

Sarrera

Ikerketa honen helburua izan da EAEko biztanleriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz dituzten iritzi eta jarrerak aztertzea hainbat eremutan, hala nola, etxea, politika edota lana. Landa lana 2018ko martxoaren 20tik 24ra egin zen.

Gizarteak berdintasunaren sustapenari babes handia eskaintzen dio eta bere erabakietan eragina duela ziurtatzen du

Herritarren gehiengoak uste du berdintasunaren sustapena garrantzitsua dela beraientzat pertsonalki (%99 guztiz ados edo ados), gizarte justu eta demokratikoa ziurtatzeko (%98) eta, enpresentzat eta ekonomiarentzat (%97).

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaiak eragina duela jendeak **erabaki pertsonalak hartzerakoan** baieztatzen dute herritarrek: seme-alaben ikastetxea aukeratzekoan (%90 asko edo nahikoa), lanpostu aukeraketan (%82), hedabideak aukeratzekoan (%67) eta kontsumo erabakietan (%54). Euskadin jasotako aldeko erantzunak Europa Batasuneko altuenen artean daude. Emakumeek gizonen baino gehiago hartzen dutela kontuan berdintasunaren garrantzia erabakiak hartzerakoan ziurtatzen dute, seme-alaben ikastetxe aukeraketan izan ezik, kasu horretan ez baitago alderik.

Berdintasunaren alde egiten duten **portaera maskulinoak** jendartearen gehiengoak **positiboki baloratzen** ditu: gizon batek bere bikotekidearekin etxeko lanak berdintasunez partekatzea (%99 oso edo nahikoa ondo), gizon batek seme-alabak zaintzeko baimena hartzea (%96), gizon batek lagunei aurka egitea broma sexistak egiteagatik (%78) eta gizon batek bere burua feministatzat jotzea (%68; emakumeen %72k, gizonen %63ren aurrez aurre). Euskadi EBko herrialdeen buru dago, Suediarekin batera, herritarren %76ak honelako portaerei babesa eskaintzen baitie (EBko batez bestekoa %36koa da).

Berdintasunaren alde egiten duten portaera femeninoen onarpena ere oso altua da, sexuaren arabera iritzian ez dago alderik: emakume batek jokaera matxistak salatzea (%92 oso edo nahikoa ondo), emakume batek bere bizitzan karrera profesionalari lehentasuna ematea (%86), emakume batek seme-alabarik ez izatea erabakitzea (%72) eta bere burua feministatzat jotzea (%74).

Edozelan, **generoari dagozkion estereotipoak** agertu dira biztanleen artean: emakumeek gizonen baino neurri handiagoan hartzen dituztela erabakiak emozioetan oinarrituta (%51 guztiz ados edo ados) eta, gizonen ardura garrantzitsuena dirua irabaztea dela eta emakumeena etxea eta familia zaintzea dela (%11) hautematen dute herritarrek.

Herritarren ustez emakumeek zein gizonen arduratu behar lukete etxearen eta familiaren zaintzaz, nahiz eta ikusten den nagusiki emakumeek dutela etxeko lanen eta zaintzaren ardura

Jendartearen gehiengoak hautematen du emakumeek gizonen baino denbora gehiago pasatzen dutela **etxeko lanetan eta zaintzan** (%84); pertzepzio hau pixka bat altuagoa da emakumeen artean (%87, gizonen %82ren aurrez aurre). EBko herrialdeetan soilik Grezia eta Espainiak gainditzen dute Euskadi arlo honetan.

Emakumeek zein gizonen **familiako rol desiragarrien** inguruan iritzia partekatzen dute, honela: emakumeek zein gizonen etxearen eta familiaren zaintzaz arduratu beharko lukete (%99 guztiz ados edo ados), gizonen zein emakumeek etxera dirua ekartzeaz arduratu behar lukete (%84), etxetik kanpo lan egiten duen ama batek lanik egiten ez duen batek bezain harreman goxo eta ziurra izan dezake bere seme-alabekin (%74) eta, azkenik, emakume batentzat etxeko lanetan aritzea diru-sarrera bat lortzeko lan egitea bezain gogobetegarria izan daiteke (%59).

Bikotean lanaren eta seme-alaben zaintzaren banaketari dagokionean, %57k biek ordu gutxiago lan egin eta biek haurra berdin zaintzearen aldeko iritzia adierazi dute eta, %33k biek lanean jarraitu eta haurra zaintzeko laguntza bilatzearen alde (hautzaindegia, zaintzailea, aiton-amonak, eta abar).

Politikan emakumeen presentzia handiagoa aldarrikatzen da, nahiz eta ardura politikoak hartu ahal izateko genero desberdintasunak atzematen diren

Euskadin erabakitze politikoko postuetan emakume gehiago egotearen alde dago herritarren %71, aldekotasuna handiagoa da emakumeen artean (%75) gizonen artean baino (%67). Aldarrikapen hau EBko batez bestekoaren (%54) oso gaineratik babesten dugu.



Halaber, gehiengo batek uste du **politikan ari diren emakumeak hedabideek okerrago tratatzen dituztela** gizonak baino (emakumeen %72 guztiz ados edo ados; aldiz, gizonen %60), emakumeengan konfiantza nahikoa ez duten gizonak agintzen dutela politikan (%70), emakumeek askatasun gutxiago dutela euren familia ardurak direla eta (emakumeen %74, gizonen %63ren aurrez aurre) eta politikan ari diren emakumeei gutxiago baloratzen diren edo prestigio txikiagoa duten arloetako ardurak egozten zaizkiela (emakumeen %67 eta, aldiz, gizonen %60).

Orobat erantzukizun politikoak gauzatzeko estereotipoak irauten dutela antzematen da emakume eta gizonen anbizio, interes zein ezaugarriei dagokienean: elkarrizketatuek uste dute gizonak emakumeek baino anbizio handiagoa dutela (%28), emakumeek gizonak baino interes gutxiago dutela politikako ardura postuetan (%25) eta, azkenik, gutxiagoa dira emakumeek ez dutela politikan ardura postuak betetzeko behar diren dohain eta gaitasunik uste dutenak (%5).

Gehiengoaren ustez emakumeei gutxiago ordaintzen zaie lan mota berarengatik eta onartezina da hori. Alabaina, soilik %14k atzematen du ezberdintasuna norbere enpresan

10 elkarrizketatuk 7k baino gehixeagok uste dute Euskadin emakumeei gutxiago ordaintzen zaiela lan egindako ordu bakoitzeko. Zifra hau Europako batez bestekoaren oso antzekoa da (%69)

Emakumeen eta gizonen arteko soldata ezberdintasunaren balorazio negatiboa EBko altuena da. Honela, herritarren %98k ez oso onargarria edo batere onargarria ez dela deritzote.

Alabaina, lan egiten dutenei euren enpresan gai honen egoerari buruz galdetutakoan, %14raino jaisten da pareko posizioetan emakumeek gizonak baino soldata txikiagoa jasotzen dutela diotenen ehunekoa (%17 emakumeen artean eta %11 gizonenean). Ehuneko hau EBko herrialdeetako baxuena da.

Lanean ari direnen erdien iritziak euren enpresak arazoari arreta nahikoa eskaintzen dio (%51k diote guztiz edo apur batean), EBko batez bestekoaren azpitik geratzen den portzentajea (%55).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 950 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,2$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2018ko martxoaren 20tik 24ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 10